



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

HORRA, EHUNETA BERROGEITA HAMARGARRENA

SARIA:

Bertako produktu
ekologikoz
osaturiko saski
eder bat

2016ko ABENDUA

150. ALEA



IRAKURLAN

ETXETIK PLAZARAK 150

Lehenengo eta behin, esku artean duzun Etxetik Plazara aldizkari hau 150. alea dela jakinarazi nahi dizugu, 1994an Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko IKA euskaltegikook sortutako proiektu honek 22 urte bete ditu jada. **Hori dela eta**, ale berezi honetan gure proiektuaren joan-etorrien berri izanen duzu. Erran beharra dago, aldizkaria martxan jarri eta segituan, Etxetik Plazara irratsaioa ekimena ere abiatu genuela, Xorroxin irratiaren uhinen bidez.

Ekimen bikoitz honek helburu anitz ditu, baina ideia garrantzitsu hauetan laburtzen ahal dira: aldizkaria euskara etxetik mugitu gabe lantzeko tresna da; **alde batetik**, euskaltegira etortzen ez den jende euskaldunarendako, eta **bertzetik**, euskaltegian ikasten ari diren ikasleendako. Aldizkariaren helburua, gure zonaldeko euskalkien eta euskara batuaren arteko zubi-lana eginez, **bai** irakurmena, **bai** idazmena, **bai** gramatika, ahalik eta arin eta atseginen lantzen laguntzea izan da eta izanen da. **Era berean**, Irratsaioen helburua antzekoa da, beti ere irratiak dituen baliabideez profitatuz. Helburu horiek betetzeko hainbat ariketa planteatzen dira: irakurgaiak, bertsoak, kantuak, berri bitxiak, errezetak, toponimia, ikasgaiak...

Aipatu bezala, 22 urteotan 150 ale argitaratu ditugu. 125. alea gauzatu zenean Etxetik Plazara liburuaren bilduma ere kaleratu genuen. **Bertzalde**, Irratsaioei dagokionez, aipatu behar da 600 emisio inguru burutu ditugula (saio bakoitza 30 minutukoa izanik). Irratsaioak balizko 25.000 entzulerengana ailegatzen dira.

Ibilbide luze honetan proiektuan lan talde anitz aritu dira, bakoitzak bere ilusioa eta ekarpen interesgarri eta aberatsa eginez. Eta **ez hori bakarrik**, aldizkariak kolore ezberdinak izan ditu: zuria, izokin kolorea, laranja, berdea eta orain duena, horia, **alegia**. Diseinuari dagokionez, **aipatu behar da** poliki-poliki aldizkariak berezko estiloa lortu duela, eta hori Joseba Larratxe marrazkilariari esker izan da, dudarik gabe.

Irratsaioak beti Xorroxin irratiak uhinei esker barreiatu badira ere, egoitza ezberdinetara joan behar izan dugu asteroko hitzordua betetzera: Irurita, Elizondoko San Frantzizko eskola, Lesakako edo Elizondoko oraingo egoitzara, **besteak beste**.

Aldizkariaren historiarekin **jarraituz**, egun 4.500 ale banatzen dira, Tipi-ttapa aldizkariaren harpidetzaz baliatuz. Duela lau urte arte aldizkaria Leitzaldea, Goizueta, Imotz Basaburua, Lekunberri, Ultzama, Anue... eskualdeetan banatzen zen. Hasierako urteetan, berriz, Lapurdi eta Nafarroako Xareta eremura ere ailegatzen zen, ia 10.000 ale banatzen zirelarik.

Etxetik Plazarak une gozoak eta ilunak bizi izan ditu, baina aitortu behar da **zorionez** ekimenak bultzatzaile anitz izan dituela eta diru-laguntzak ere erakunde desberdinetatik ailegatu izan direla: Europatik, Udalbidetik, Euskadiko Kutxatik, CANetik, Nafarroako Gobernutik... Baina ibilbide luze honetan bereziki azpimarratu eta eskertu behar dugu Baztango Udalak zein Bortziriak eta Malerreka Mankomunitateek egindako ekarpena. Garai zailtan murrizketak etorri direnean, haiei esker Etxetik Plazaren katea ez da hautsi, nahiz eta orain urtean bortz ale bakarrik kaleratzen ditugun, hasmentako urteetan bederatzi argitaratzen ziren.

Halaber, Etxetik Plazara aldizkariak eta irratsaioek hainbat merkatar, ostatu eta jatetxeren laguntza ere izan dute. Ekarpene horiei esker zozketatzen diren sariek irakurleak eta entzuleak motibatzen zaituztete gure bi proiektuetan parte har dezazuen.

Honenbestez, 150. ale honekin 22 urteotan gure ekimenean parte hartu duzuen guztiei omenaldi xumea egin nahi dizuegu: zuri, irakurle eta irratiak entzule zaren horri, aipatu nahi dizugu Etxetik Plazaren giblean lan taldetxo bat dagoela, **funtsean**, elkarlanari esker, eta ilusio handiz, aleka-aleka aldizkari eta saio gehiago burutzen segituko duena. Hori da gure erronka: euskara etxetik plazara eramatea. Etxeko euskara harrotasunez plazara eraman, eskolara, udaletxera, jolasparkera, bankuetxeetara, medikuarenera... mundura!

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGULAKO!

LAN ETA LAN



Atal honetan testu antolatzaileei buruz arituko gara. Aitzineko orrian begiratzen baduzu, letra lodiz idatzitako hainbat hitz aurkituko dituzu, horiek dira, hain zuzen ere, testu antolatzaileen zerrendan aurkitzen ahal ditugun adibideetako batzuk.

Baina zertarako erabiltzen dira? Izenak berak dioen bezala, testua edo ideiak antolatzeko erabiltzen dira ahozko zein idatzizko jardunetan. Horrela, adierazi nahi ditugun ideiak modu ordenatu eta garbiago batean azaltzea lortuko dugu, bide batez, testu aberats eta koherente bat sortuz.

Guk erabili ditugun testu antolatzaileez gain, bertze aunitz ere badaude, eta horixe lantzeko ariketatxo bat prestatu dizugu. Behean testu antolatzaileen zerrenda tiki bat eta esaldi batzuk aurkituko dituzu. Zure lana, esaldietako testu antolatzaileen baliokidea zerrendan harrapatzea izanen da:

- | | |
|-------------------|------------------------|
| a) Lehen-lehenik | e) Horrenbestez |
| b) Halaber | f) Ondorioz |
| c) Erran dugunez | g) Hori horrela izanik |
| d) Besteen artean | h) -ren harira |



- 1) Irurita, Elizondoko San Frantzisko eskola edo Lesakako egoitzara, **besteak beste**.
- 2) **Aipatu bezala**, 22 urte hauetan 150 ale argitaratu ditugu.
- 3) **Era berean**, irratsaioen helburua antzekoa da.
- 4) **Lehenengo eta behin**, esku artean duzun aldizkari hau 150. alea dela jakinarazi nahi dizugu.
- 5) **Funtsean**, elkarlanari esker, eta ilusio handiz, aleka-aleka aldizkari eta saio gehiago burutzen segituko dugu.
- 6) **Honenbestez**, parte hartu duzuen guztiei omenaldi xumea egin nahi dizuegu.
- 7) Aldizkariaren historiarekin **jarraituz**, egun 4.500 ale banatzen dira.
- 8) **Hori dela eta**, ale berezi honetan gure proiektuaren joan-etorrien berri izanen duzu.

BOTA BERTSOA!

Etiket Plazararen 150. ale honetan ekimen honen historia errepasatu dugu eta historia horretan hagitz garrantzitsuak izan dira hainbat eta hainbat kolaboratzailek egindako ekarpenak: bertsolari, poeta, kontalari, marrazkilari, idazle... Horiei esker 150 aldizkari hauek modu gustagarri, erakargarri eta interesgarriagoan kaleratu ahal izan ditugu. Hori dela eta, zorion-ale honetan ere kolaboratzaile horiei ere gure omenaldi xumea egin nahi diegu.

Urteurrenaren alea dela eta, hona hemen Julen Zelaiek prestatutako bertsoak. Ohi den bezala, bertsoei hainbat oin kendu dizkiegu eta behean paratu ditugu ea bertsozale sen horrek hor jarraitzen duen eta dagokion tokian jartzen dituzun.

ETXETIK PLAZARAREN 150. ALEA

1

Inor ez denez jaio
euskaltzain _____ 1 _____
laguntzeko erdaldun
eta EUSKALTZALE,
hogeitabi urtetan
egin gabe _____ 2 _____
Ehun ta berrogeitamar...
ene... zenbat ALE!
Euskara beharrezko
delako _____ 3 _____

2

Sinonimoen bila
Testuan _____ 4 _____
asmatzea zein dugun
esaldi ZUZENA,
berridazketa da maiz,
probarik _____ 5 _____
edo ta hutsuneak
BETETZEARENA
baina jostetan errex
ikasten den _____ 6 _____

3

Euskara zabal dedin
Etiket _____ 7 _____
lantokira, frontoira
edo HONDARTZARA!
Zuek segi parte hartzen
oraingo _____ 8 _____
ta behar den lekutik
laguntzarik BADA
hirurehun aletara
Iritsiko _____ 9 _____



A- GARA B- SEINALE D- BARRENA E- URGAZLE
F- PLAZARA G- ZAILENA H- DENA I- KALE J- GISARA

BITXILOREAK

Etiket Plazara egitasmoaren barruan sortzen dugun aldizkari honetaz gain, helburu bertsua duten hainbat parekide aurki ditzakegu. Hori dela eta, hurrengo lerrootan euskalduntze eta alfabetatzeko balio duten aldizkari horien aipamen tiki bat eginen dugu. Ikusiko duzunez, hutsune batzuk utzi ditugu testuan, beraz, zure lana izanen da hutsune horiei dagozkien hitzak aukeratzea. Animo bada!

ERNE SARIRAKO!

Aizu!

80. hamarkada hasieran sortu zen aldizkari1..... euskara ikasleei laguntzeko helburuarekin egin zuen, euskara ikasten ari2..... irakurgaiak izan zitzaizten, kioskoan horrelakorik harrapatzen ez zutelako. Lan honen aitzindariak, lagun talde bat osatzen zuten Deustuko Unibertsitateko zenbait3..... izan ziren. Haietarik4..... euskara ikasten ari ziren eta euskaltegitik kanpo euskara lantzeko aukera gehiago bilatzeko bide horretan, agerkaritxo bat ekoizteari ekin5..... Gaur egun, AEKren baitan egiten du bere ibilbidea.

Zutabe




Hau ere 80. hamarkada hasieran agertu zen, baina kasu honetan, HABEren Euskara Hizkuntza Zerbitzuaren eskutik.6..... aitzinera, Hizpide izeneko hilabetekaria erantsi zitzaion, irakaskuntza eta alfabetatze gaietan teoria, teknika eta ikerketak7..... asmoz.

Habe

Honakoa ere, HABE erakundeak sortutakoa da. 1992. urteaz geroztik argitaratzen da aldizkari hau eta euskal gizartetik abiatutako gaiak8....., testuak euskara eredugarrian idatziak eta orokorrean euskara ikasteko baliagarria9..... izan dute irizpide nagusi. Gaur egun paperean argitaratzen ez den10....., formatu elektronikoan aurki daiteke HABEko web atarian.

Euskaltzale

Euskal Herrian Euskaraz elkarteak11..... kazeta dugu Euskaltzale. Orri horietan, euskarak gizartearen esparru ezberdinetan, osasungintzatik12....., duen tratamendua aztertzen da.



1. a) honetan
b) hau
c) honek

2. a) zirenek
b) ziren
c) zirenak

3. a) ikaslea
b) ikasleak
c) ikasle

4. a) batzuek
b) batzuk
c) batzu

5. a) zuten
b) zioten
c) zitzaion

6. a) 2001.tik
b) 2001etik
c) 2001tik

7. a) ezagutarazteko
b) ezagutzeko
c) ezagutu

8. a) lantzea
b) lantzen
c) lantzeko

9. a) izatea
b) izaten
c) izateko

10. a) ere
b) halere
c) arren

11. a) sortua
b) sortutako
c) sortzean

12. a) unibertsitatera
b) unibertsitateara
c) unibertsitatetara

ZER DIOTE?

Etiket Plazara ekimenaren gibelean ikasle anitz badira, aleka-aleka eta irratsaioz irratsaio gure ariketak egin dituztenak, anitz ikasi dutenak... gure lehiaketetan parte hartu dutenak. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Euskararekiko motibazioa, maitasuna eta jarrera aktiboa izaten lagungarria izan bada, erran dezakegu gure lanak fruitu emankorrak eman dituela. Urte hauetan gurekin bat egin dutenen testigantza sorta bat bildu dugu. Lau pertsona hauei Etxetik Plazara zergatik duten gustuko eta zer ikasi duten galdetu diegu eta hona hemen erantzun digutena, baina kasu! Ongi ulertzeko hemen behegian harrapatuko dituzuen hitzei lekua eman beharko diozue lehenbizi:

a) gain
b) bertzetik
c) baita

a) irakurtzeko
b) berriz
c) esker

a) hainbat
b) aukera
c) bai

Gauza anitz ikasten ditut, bai historia, bai barazkiei buruz, errezetak... Eta arras interesgarriak diren(1).... gauza. Hau dena lantzeko egiten diren jokoak ere arras interesgarriak dira. Gehienbat, sarirako jokoa gustatzen zaizt, eta zer erranik ez saria irabazten badut. Jaso dudana hauxe da; gauza gehiago nola egin, nola gertatu ziren, ohiturak... jakitea. Momentu entretenigarria pasatzea eta bertze gaiez(2)...., euskararen gramatika lantzea.

Mari Atxa (Elizondo)



Aldizkaria irakurtzen dinat eta ahal dudan guzietan aditzen dinat Etxetik Plazara. Biak oso interesgarriak iduritzen zaizkidan eta gainera euskara aberasteko eta lantzeko tresna aproposak. Interesgarriak diren gauza asko lantzen ditun aldizkari honetan eta horregatik, batetik kultura atzemateko eta(3).... nire euskara aberasteko erabiltzen dinat. Bai ekimen honek eta(4).... Xorroxin irratia egiten duten ekarpena oso emankorra iduritzen zaidan euskararendako.

Juan Carlos Pikabea (Lesaka)

Arras gustukoak ditut: aldizkariak gai interesgarriak lantzen ditu, atsegina da, erreza(5).... Irratsaioak(6)...., saio alaiak dira, umoretsuak, bitxikeria anitz kontatzen dute, edozein entzulek parte hartzen du eta deitzen dutenek gainera, gauza anitz gehitzen dute. Beti erdaraz ikasi dudanez, aldizkariak euskaraz irakurtzeko eta euskara lantzeko aukera ematen dit. Sari erakargarri baten zozketan parte hartzeko(7).... ere ematen dute.

M^a Eugeneria Maiora (Behartzun)



Gustuko dut gure kultura eta hizkuntzarekiko hurbiltzeko modu bat delako. Aldizkariari(8)...., beti gauzak ikasten ditut. Gauza berriak eta dagoeneko dakizkigunak birgogoratzeko modu bat da,(9).... burua trebatzeko ere. Gure ama hizkuntza delako eta euskararekiko hurbiltasuna lortzen edo ahalbidetzen dit, hori da jasotzen dudana.

Cecilia Balda (Ezkurra)

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (3. or.):

1-d, 2-c, 3-b, 4-a, 5-f, 6-e, 7-h, 8-g

ZER DIOTE? (6. or.):

1- E; 2- I; 3- B; 4- D; 5- G; 6- H; 7- F; 8- J; 9- A

BOTA BERTSOA! (4. or.):

1- g; 2- a; 3- b; 4- i; 5- d; 6- e; 7- h; 8- f; 9- c

149. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (6. or.):

1-d, 2-e, 3-j, 4-f, 5-i, 6-g, 7-h, 8-a, 9-k, 10-c, 11-b

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria:

Bertako produktu ekologikoz osaturiko saski eder bat

149. aleko irabazlea:

Maite Oteiza
Iruritakoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak abenduaren 20a baino lehen bidali itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

- | | | | |
|-----------|-----------|-----------|------------|
| 1 - _____ | 4 - _____ | 7 - _____ | 10 - _____ |
| 2 - _____ | 5 - _____ | 8 - _____ | 11 - _____ |
| 3 - _____ | 6 - _____ | 9 - _____ | 12 - _____ |



EUSKARA berri on!!

ESKER ONEZ

beteriko SU-PINTTARRAK;

Iturengo Altxunea eta
Urdazubiko Nikolaurenea
erretegiei, Lesakako
Linddurrenborda sagardote-
giari, Beko mintegiari, Bidazi
Elkarteari, Baztango Udalari
eta Bortziriak eta Malerre-
kako Euskara Mankomuni-
tatei...

... eta ESPERANTZA eta
ESKER ON SUTARRI GORIAK
euskaltegion eta euskalgintza-
ren egoera ahula sendotzeko,
bultzatzeko eta babesteko
ahaleginetan dabilen Nafa-
rroako Gobernu berriari...
ea asmo onak gauzatzen
ahal diren.

... eta BEROTASUN GOXOA EUSKARA
erabiltzeko, hobetzeko, ikasteko,
babezteko eta EUSKARAZ osasuntsu
bizitzeko ahaleginean ari zareten Etxetik
Plazarazale eta euskaltzale guztiei.
Ea 200. alera ailegatzen garen!!



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

